

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZIGOITIKO UDALA

2020ko otsailaren 4ko 45 zk.dun Alkatetza-ebazpenaren laburpena. Horren bidez, euskararen ikaskuntzak eta euskararen ezagutza eta ikaskuntza bultzatzen duten proiektuek sortutako gastuak ordaintzeko dirulaguntza-deialdia argitaratzen da. Deialdia 2019-2020 ikasterterako da, eta norgehiagoka bidezko lehiaketa-prozedura bidezkoa da

BDNS(Identif.): 495493

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoarekin bat eginez, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Diru-laguntzen Datu Base Nazionalean kontsultatu daiteke (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans>).

Lehenengoa. Onuradunak

Dirulaguntza honen onuradun izan daitezke:

Euskararen ikaskuntza: ondorengo baldintzak betetzen dituzten pertsona fisikoak:

- a) Zigoitiko udalerrian erroldatuta egotea ikastaroa hasten denean eta hala segitzea amaitu arte.
- b) 16 urte edukitzea ikastaroan izena ematean.
- c) Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundeak (HABE) onartutako euskaltegi batean edo Udako Euskal Unibertsitatean (UEU) matrikulatuta egotea.
- d) Gutxienez ikastaroko orduen ehuneko 80an izatea.

– Euskaren ezagutza eta ikaskuntza bultzatzen dituzten proiektuetarako dirulaguntzak: euskara sustatzen duten irabazteko asmorik gabeko entitateak, nahiz eta euskara sustatzea ez izan entitatearen xede nagusi bakarra, baldin eta entitatearen jardunak Zigoitiko udalerrinari eragiten badio, egoitza bertan ez eduki arren.

Egoitza Zigoitian duten irabazteko asmorik gabeko entitateak Zigoitiko Udalerriko Elkartearen Erregistroan inskribatuta egon behar dira; aldiz, egoitza Zigoitian ez dutenak EAeko Elkartearen Erregistro Orokorrean edo EAeko Kirol Entitatearen Erregistroan egon behar dira inskribatuta.

Dirulaguntza eskatzen duena nortasunik gabeko pertsona fisiko edo juridiko publikoen zein pribatuen elkarte bada, eskaeran eta dirulaguntza ematen duen ebazpenean berariaz agertu behar dira elkarteko kide bakoitzak hartzen dituen gauzatze konpromisoak eta bakoitzari aplikatuko zaion dirulaguntzaren zenbatekoa (kide guztiak izango dira dirulaguntzaren onuradunak).

Bigarrena. Helburua

Dirulaguntzaren helburua da euskararen ikaskuntzak eta euskararen ezagutza eta ikaskuntza bultzatzen duten proiektuek sortutako gastuak finantzatzeko laguntza ematea.

Honakoak lagunduko dira diruz:

– Euskara ikastaroen matrikula gastuak (udako ikastaroak, ikastaro trinkoak eta barnetegiak ere bai, 2019ko urritik 2020ko irailera egiten direnak).

Ondoko gastu hauek ez dira sartzen, mota guztietako ikastaroetan: joan-etorrien gastuak, mantenu gastuak eta ostatu gastuak.

– Euskaren ezagutza eta ikaskuntza bultzatzen dituzten 2020an garatutako proiektuen antolaketak eragiten dituen gastuak.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Dirulaguntza hauek emateko modua arautzen duten oinarriak, euskararen ikaskuntzak eta euskararen ezagutza eta ikaskuntza bultzatzen duten proiektuek sortutako gastuetarako dirulaguntzen oinarriak arautzen dituen Ordenantza espezifikoan daude jasota. Ordenantza hori 2016ko apirilaren 20an onartu zen, eta 64 zk.dun Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, 2016ko ekainaren 6an.

Diru-laguntza hauek emateko prozedura, norgehiagoka bidezko lehiaketaren erregimenaren menpeko izango da. Aurkeztutako eskaeren konparaketa egingo da, eta eskaeren lehentasunaren arabera ordena ezarriko da, deialdi honetan zehaztutako balorazio-irizpideekin bat eginez. Esleipena, hurrengo puntuan zehaztutako muga kontuan hartu eta aipatutako irizpideak ezarrita balorazio handiena jasotzen dutenentzat egingo da.

Laugarrena. Laguntzaren zenbatekoa

Deialdi honetan ezarritakoa betez aurkeztutako eskaeren arabera emandako diru-laguntzen finantzaketa honako aurrekontu-aplikazioari egotziko zaio: 2020ko aurrekontuaren 335.480.000 zenbakiduna, "Euskara ikasteko bekak" izena duena.

Deialdi honetako laguntzen gehienezko guztirako zenbatekoa 7.000 eurokoa da, 335.480.000 aurrekontu-aplikazioaren barruan, 2020 ekitaldiko aurrekontuarekin bat eginez.

2020 urteko aurrekontu-exekuzioaren Arauarekin bat eginez, Gastuen Aurrekontuko 335.480.000 aplikazioan sartutako ordainketa-kredituak hedagarriak izango dira. Dirulaguntza honetarako xedatutako kopurua 2.000 euroan handitu ahal izango da, deialdi berri bat egin beharrik gabe, beti ere, dagokion aurrekontu-aldaketa izapidetu ondoren.

– Euskara ikasteko dirulaguntzak: matrikularen kostuaren ehuneko 100, edo, ikastaro mota bakoitzerako, ondorengo koadroan ezarritako gehienezko kopurua, matrikularen kostua handiagoa den kasuetan:

IKASTARO MOTA	GEHIENEZKO DIRULAGUNTZA
Ohiko ikastaroak (2019ko urritik 2020ko irailera, egunean 2-3 ordu)	850 euro ikastaroko
Ikastaro trinkoak (2019ko urritik 2020ko irailera, gutxienez egunean 5 ordu)	1.250 euro ikastaroko
Barnetegiak (gutxienez egunean 5 ordu)	150 euro hileko ikastaroko
Autoikaskuntza ikastaroak (2019ko urritik 2020ko irailera)	650 euro ikastaroko
Ikastaro mota	Gehienezko dirulaguntza
Udako Euskal Unibertsitatearen ikastaroak	150 euro ikastaroko

Dirulaguntza bateratua eman ahal izango zaie ohiko ikastaroa eta barnetegia egin dutenei, beti ere, batak eta besteak helburu akademiko osagarria badute.

– Euskararen ezagutza eta ikasketa bultzatzen duten euskararen aldeko proiektuetarako dirulaguntzak: proiektuaren kostuaren ehuneko 100era arte. Kopuruak ezingo du dagokion aurrekontu aplikazioan urte horretan esleitutako kopurua gainditu.

Bosgarrena. Eskaerak eta justifikazioa aurkezteko epea

Euskara ikasteko dirulaguntzaren eskaerak eta justifikazioa, ondorengo puntuan zehaztutako dokumentazioarekin batera, aurkezteko epea, 2020ko urriaren 30ean bukatuko da.

Euskararen ezagutza eta ikasketa bultzatzen duten euskararen aldeko proiektuetarako eskaerak, proiektua hasi baino hilabete lehenago aurkeztu beharko dira, eta, beti ere, 2020ko urriaren 30a baino lehen. Gastuaren justifikazioa, diruz lagundutako proiektua bukatu eta hilabeteko epean aurkeztu beharko da, eta, beti ere, 2021eko otsailaren 1a baino lehen.

Seigarrena. Bestelako datuak

Eskaerarekin batera, ondorengo dokumentazioa aurkeztu beharko da:

– Euskara ikasteko dirulaguntzak:

1. Udalak emandako eskabide ofiziala.

2. Ikasketak egin diren erakundearen ziurtagiria, bertan ondorengo datuak adierazita: hasitako ikastaroa eta bukatutakoa, ikastaroaren ordu-kopurua guztira, ikaslearen asistentziaren ehunekoa, ikastaroaren hasieraren eta bukaeraren datak, eta matrikularen kostu osoa.

Barnetegien kasuan, matrikularen gastuak mantenu- eta ostatu-gastuetatik berezita jaso beharko dira.

3. Matrikula ordaindu izanaren egiaztatzea.

Autoikaskuntzarako ikastaroen kasuetan:

1. Udalak emandako eskabide ofiziala.

2. Ikasketa-zentroarekin hitzartutako kontratoaren kopia, honako datuak jasota: matrikularen zenbatekoa, kontratatutako epealdia, egindako mailak eta gainditutako maila.

3. Matrikula ordaindu izanaren egiaztatzea.

4. Asistentziaren egiaztatzea, gutxienez 152 ordukoa, eta, edozein kasutan ere, HABEk autoikaskuntza-ikastaroa izaera aitortzeko eskatutako guztirako orduen ehuneko 80a. Orduen kontaketaarako, elkarrizketa-orduak, tutoretzakoak eta bakarkako lanarenak hartuko dira kontuan.

– Euskararen ezagutza eta ikasketa bultzatzeko euskararen aldeko proiektuetarako dirulaguntzak:

1. Udalak emandako eskabide ofiziala.

2. Proiektuaren memoria, bertan jasota egingo diren jarduerak, helburuak eta xedeak.

3. Proiekturako aurreikusitako gastuen eta diru-sarreraren aurrekontua.

Ondategin, 2020ko otsailaren 4an

Alkatea

JAVIER GORBEÑA GARCÍA